

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Yolanda Barcina (UPN) Nafarroako Lehendakari izendatzeko inbestidura- eztabaida izango da Parlamentuan ostegun honetan

Hautagai bakarrak beharrezkoa duen gehiengoa lortzea eta karguaz datorren uztailaren 1ean jabetzea aurreikusita dago

Miércoles, 22 de junio de 2011

Yolanda Barcina (UPN) Nafarroako Lehendakartzarako hautagaitzari buruzko inbestidura-eztabaida egingo da Nafarroako Parlamentuan ostegun honetan, ekainak 23, 09:30etik aurrera, Kargu horretarako hautagai bakarra da, eta aurreikus daiteke lehen bozketan kargua hartzeko beharrezko gehiengoa izango duela, [astearte honetan bere alderdiaren eta PSNren artean sinatutako koalizio-akordioari](#) esker.



Nafarroako Parlamentuko osoko bilkuren aretoa.

Eztabaida goizean zehar egingo da eta, haren iraupenak uzten badu, hautagaitzaren lehen bozketak egingo da; kasu honetan, Lehendakari izendatzeko Ganberako gehiengo absolutuaren babesa beharko du. Hala gertatzen ez bada, eztabaidak ostiralean, hilak 24, jarraituko luke, eta bozketak egun horretan bertan egingo litzateke.

Ostegun honetako osoko bilkura hasiko da, Gobernuak Lehendakari izateko hautagaia Parlamentuko lehendakariak Ganberari egingo dion proposamenaren jakinarazpenarekin. Jarraian, hautagaiak, osatu nahi duen Gobernuaren programa politikoa azalduko du, denbora-mugarik gabe, eta Ganberaren konfiantza eskatuko du.

Osoko bilkuraren ordu eta erdiko etenaldiaren ondoren, hala eskatzen duen Talde Parlamentario bakoitzeko ordezkari batek hitza hartuko du, handitik txikirako ordenan kide-kopuruari erreparatuz, hizketaldirako hogeita hamar minutuko tarteak izanik.

Proposatutako hautagaiak hitza hartu ahal izango du hala eskatzen duen guztietan. Hizlarietako bati banaka erantzuten badiu, hark erantzuteko eskubidea izango du; era berean, hautagaiak erantzuna talde parlamentarioko ordezkariari oro har egiten badie, talde horiek ere erantzuteko eskubidea izango dute. Erantzuteko txandaren iraupena Parlamentuko lehendakariak ezarriko du.

Bozketa Parlamentuko lehendakariak finkatutako orduan egingo da; sekretupekoa izango da, eta txartelekin burutuko da. Proposatutako hautagaiak Parlamentuko parlamentarien gehiengo absolutuaren botoa eskuratzen badu, konfiantza eman zaiola iritziko da. Gehiengo hori lortzen ez badu, bigarren bozketa bat egingo da aurrekoa egin eta handik 24 orduara, eta konfiantza eman zaiola iritziko da, Ganberako parlamentarien gehiengo sinplea eskuratzen badu. Bigarren saio hau, inbestidura-eztabaidarako finkatutako egutegiaren arabera, larunbatean, hilak 25, egingo zen.

Prozesu hori bete ondoren, Nafarroako Lehendakari berria karguaz uztailaren 1ean jabetuko dela aurreikusita dago, eta kontseilariak, hurrengo egunean, uztailaren 2an.